

Ediciones Júcar-eko Silverio Cañada-ren bidez Asterix-en obrak euskaratzeko eskabidea hartu zuela eta lanori zertan zen galdetuz.

Hara hemen zenbait ohar gai horretaz dakidana agertuz. Itzulpen enkargua hartzetik laster hil zen G. Aresti. Zenbait zirriborro prestatu omen zituen baina lanik apenez burutu zuen. Horietarik zerbait pasatu zen Jesus Mari Arrietaren eskuetara, argitaratzaile arduradunagandik. Ezin nezake ziurtatu itzuli zuen guzia ala parte bat. Baina Jesus Mari berak ezan zidanez, guti aurkitu omen zuen aprobetxagarririk eta goitik behera berriz itzuli beharren aurkitu omen zen.

1976-tik 1978-ra Coscinny-ren egiletzan, Uderzo-ren marrazkiz, Dargaud etxearen jabegoan Mas-Ivars Editores, S.L.-ek, argitaratu zituen baina itzultzailearen izenik gabe, euskal itzulpenen jabe eta banatzaile bakartzat Iñaki Beobide. Argitaratutako liburuen izenak: *Asterix. Buruzagien burruka*; *Asterix-en ibilaldiak*; *Asterix eta Kleopatra*; *Asterix Legionarioa*; *Asterix eta normandoak*; *Asterix Helvetian*; *Asterix galesa*; *Asterix eta godoak* eta *Asterix eta urrezko igitaia*. 29,5 x 21,5 zm. neurrizko liburuxkak, 48 orrialdekoak, kartonez enkuadernatuak.

Uste dut argitalpenok ahituak direla. Dena dela, hori da eman genezakean argitasuna.

ASTERIX KOMIKIAK ETA G. ARESTI.—Aurtengo apirilaren 12an, adiskide Angel M. Ortiz Alfau-k «Miscelanea vasca» zeritzan artikulu bat argitaratu zuen Bilboko *El Correo Español*-en, beste zenbait gauzaren artean Gabriel Arestik